

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresan bi motatako harremanak eskainiko ditugu, pertsonala eta aurrez aurrekoa edo automatizatua. Bezeroren batek zalantzaren bat izatekotan, gure web orrialdea izango dute eskura eta han beharrezko informazio guztia aurkitzeko aukera izango dute. Biztanleek haien botilak betetzeko autozerbitzatu beharko dira, beraiek gure laguntzarik gabe herritik sakabanaturik egongo diren iturrietatik ura eskuratu beharko dutelako.

Norbait azaroren bat izatekotan, eta web orrialdean dagoen informazioarekin konpondu ezin badu, Balmasedan irekiko dugun egoitzara etorri daiteke. Han aurrez aurreko zerbitzua eskainiko diegu gure bezeroei eta haien arazoak lehen bait lehen konpontzen saiatuko gara.

